



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ALDUNDIAK EZ DAU BIZKAIKO EKINTZAIETZA ZENTROAN JATETXE BAT JARTEKO EZELANGO ESKAERARIK JASO

- Elkarrekin Bizkaiak, Bizkaia Dorreko solairuetako batean ostalaritza-lokal bat jarteko “legezko egokitzapena” ete dagon galdetu deutso Elixabete Etxanobe Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordean.
- Batzarretako taldeek “beharrezkotzat” jo dabe gaur Bizkaiko Batzarretan eztabaidatu dan Urduñako lau alkate-auzoen hautaketea arautuko dauen Foru Arauaren proiektua.

(Bilbon, 2021eko irailaren 14an). Gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietan egin dan Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordean, Elixabete Etxanobe Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak Elkarrekin Bizkaiari erantzun deusanez, Aldundiak ez dau Bizkaiko Ekintzaitzaren Nazinoarteko Zentroa egongo dan instalazinoetan ostalaritza-lokal bat jarteko “ezelango” eskaerarik jaso. Gai horren ganean berba egitea ez jagokon arren, “gardentasunaren mesedetan”, diputatuak baieztu dauenez, “Administrazio honek eta bere menpeko erakundeek ez dabe aurrera egin ostalaritza jarduera bat Bizkaia Dorrearen ezelango egoitzatan ezarteko jarduera administratiboetan”.

Erantzunaren ostean, Israel Escalante Elkarrekin Bizkaia taldearen ordezkariak, berretsi egin dau “kontratuaren gehigarrian” aukera hori agertzen dala, eta eskatu dau argitzeko, ostalaritzako azpiegitura hori zehaztu ezker, Aldundiko beharginei soilik emongo leuskien zerbitzua ala jente guztiari edegita egongo litzateken. Azken aukera horrek, bere eretxiz, “luxuzko jatetxe bihurtuko leuke, haren kokapena kontuan hartuta”. Modu berean, gai horren inguruan erabagiteko ardurea daukan erakundearen inguruan galdetu deutso diputatuari. Aldundia, Azpiegiturak edo enpresa esleipenduna izango litzateke. “Taberna-jatetxe bat edegiteko tramiterik ez da egin”, esan dau barriro Etxanobek.

ALKATE-AUZOETARAKO FORU ARAUA

Beste alde batetik, Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordeak, formea emon deutso Bizkaiko Lurralde Historikoan udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakundeetako alkateak hautatzeko Foru Arauaren proiektuaren testuari. Entitate horreek guztiak Urduñako Urian dagoz. Osoko bilkurak onartu ezker, Belandiako Lendoñogoitiko, Lendoñobeitiko eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Mendeikako kudeatzailea aukeratzeko moduari eragingo leuskio arauak. Horreen artetik, biztanle gehien daukazan herriguneak berrogeta hamar bat bizilagun daukaz.

Foru arau proiektuak, besteak beste, lau gune txiki horreen ordezkaria aukeratzeko modua ezarten dau. Bozketa sekretua egingo litzateke, foru eta udal hauteskundeakaz batera, baina hauteskontzi desbardinetan.

Batzordean hamar bat aldaketa egin dira 19 artikuluren testu arauemoilean, gehienak Bizkaiko Talde Berezia-PPk proponidutakoak. Besteak beste, Amaya Fernandez talde horretako bozeroaleak nabarmendu dauenez, ez da alkate-auzoen izenik aitzaten, etorkizunean aldaketarik egongo balitz be, ezta arau horren eragina jasoko leuken Foru Aldundiaren egungo saila be. Beste aldaketa bat egitea lortu dabe, hautatutako personak uko egiten badeutso, hiltzen bada edo ezintasun-egoerara igaroten bada ordezkoa egon daiten. Hurrengo hautagai bozkatuenak zuzenduko leuke alkate-auzoa.

Batzarretako ganerako taldeek, barriz, ez dabe onartu herritarren proposamen bat, hautatuak izateko hautagaitza politiko bategaz joateko beharra ez izateko, eta zerrenda edegiak ezarteko. Hori Lege Orokorraren kontra doa, Foru Gobernua babesten daben taldeen berbetan. Fernandezek azaldu dauenez, Araban egiten ari dira hori, eta auzitegiek ez dabe “ezelango arazo” juridikorik jarri.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek beste aldaketa bat egin dabe arau horretako artikuluetako batean; izan be, hautagairik ez dagon toki-erakunde txikietan, auzotar bakotxak izen bat idatzi ahal izango dau boto-paper batean “*hautesle izaera daukien eta hautaezintasun-kausetan sartuta ez dagozan personen artean*” kargua beteko dauena aukeratzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

LA DIPUTACIÓN NO HA RECIBIDO NINGUNA SOLICITUD PARA INSTALAR UN RESTAURANTE EN EL CENTRO DE EMPRENDIMIENTO DE BIZKAIA

- Elkarrekin Bizkaia pregunta a la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe, en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, si existe “encaje legal” para un local de restauración en una de las plantas de la Torre Bizkaia.
- Los grupos junteros ven “necesario” el proyecto de Norma Foral que regirá la elección de cuatro pedanías de Orduña, debatido hoy en la Cámara vizcaína.

(Bilbao, a 14 de septiembre de 2021). En la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia celebrada esta mañana en las Juntas Generales de Bizkaia, la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe, ha respondido a Elkarrekin Bizkaia que la Diputación no ha recibido “ninguna” solicitud previa para instalar un local de restauración en las plantas donde se ubicará el Centro Internacional de Emprendimiento de Bizkaia. Pese a no corresponderle hablar sobre este asunto, pero “en aras a la transparencia”, la diputada ha confirmado que “esta Administración y sus entes dependientes no han avanzado en ninguna actuación administrativa para la implantación de una actividad de hostelería en ninguna dependencia de la Torre Bizkaia”.

Tras la respuesta, el representante de Elkarrekin Bizkaia, Israel Escalante ha insistido en que, en la “adenda del contrato”, aparece esta posibilidad, y ha pedido aclarar que, de concretarse esta infraestructura hostelera, daría servicio exclusivamente al personal de la Diputación o sería abierto al público, lo que se convertiría, a su juicio, “en un restaurante de lujo teniendo en cuenta la ubicación del mismo”. También ha pedido explicaciones sobre a qué entidad le corresponde decidir sobre esta cuestión si llegara alguna solicitud. Sería la Diputación, Azpiegiturak o la empresa adjudicataria. Etxanobe ha repetido que “no se ha realizado ningún trámite para abrir ningún bar-restaurant”.

NORMA FORAL PARA LAS PEDANÍAS

Por otro lado, la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia ha dado forma al texto del Proyecto de Norma Foral de elección



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

de Alcaldes y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores del Territorio Histórico de Bizkaia, que se ubican todas ellas en la Ciudad de Orduña. La norma, de aprobarse por el pleno, afectaría a la forma de elegir al gestor de Belandia, Lendoñogoití/ Lendoño de Arriba, Lendoñobeiti/ Lendoño de Abajo y Mendeika, núcleos de población que en el mayor de los casos cuenta con medio centenar de vecinos y vecinas.

El proyecto de norma foral establece, entre otras cosas, la forma de elegir al representante de estos cuatro pequeños enclaves del territorio que se realizaría en votación secreta coincidiendo con las elecciones forales y municipales, pero en urnas distintas.

En la comisión se han introducido una decena de cambios en el texto normativo compuesto por 19 artículos, la mayoría propuestos por el grupo Mixto PP Bizkaia. Entre ellos la portavoz de este grupo, Amaya Fernández, ha destacado el que no se mencione en la norma el nombre de las pedanías por si hay cambios en el futuro, ni tampoco el departamento actual de la Diputación foral afectado por dicha norma. Han logrado introducir otra modificación para que exista sustituto en caso de que la persona elegida renuncie, fallezca o pase a una situación de incapacidad. El siguiente candidato o candidata más votada pasaría a dirigir la pedanía.

El resto de grupos junteros no han aceptado, sin embargo, una propuesta de los populares para que no fuera necesario acudir dentro de una candidatura política para ser elegido, y establecer listas abiertas, algo que va en contra de la Ley General, según los grupos que apoyan al Gobierno Foral. Fernández ha explicado que esto ya se hace en Araba y que los tribunales allí no han puesto “ninguna pega” jurídica.

Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han incorporado otro cambio en uno de los artículos de la citada norma para que, en aquellas entidades locales menores en las que no exista persona candidata, cada vecino o vecina pueda escribir en una papeleta un nombre para ocupar el cargo “*de entre las personas que reúnan la cualidad de elector/a y no se encuentren incursas en las causas de inelegibilidad*”.